

Libanoko gatazka berriro gori-gori

Zibilak izan dira bi aldeen biktimak

Zortzi zibil hil dira eta hamabi bat zauritu Israelgo Armadak eta Libanoko Hezbola gerrilla xiiak azken orduotan egin dituzten eraso- en ondorioz. Israelgo Armadarena izan zen aurreneko eraso, «istripu bat» agintarien arabera, eta zortzi zibil hil ziren. Hezbolak Israelgo Galilea ingurua bonbardatuz erantzun du.

Agentziak / Beirut-Jerusalem

ISRAEL eta Libanoren arteko gatazka asko larritu da azken orduetan, Israelgo Armadak eta Hezbola talde xiita libanoarrak eraso bana egin ondoren.

Herenegun hasi zen Israel eta Hezbolaren arteko azken liskarra. Hain zuzen ere, Israelgo Armadako F-16 ehiza-hegazkinak Libano hegoaldeko Baalbek herria bonbardatu zuten eta zortzi zibil hil zituzten. Hildako horietatik zazpi, famili berekoak ziren: ama eta sei seme-alaba.

Israelgo Gobernuak adierazi zuen Baalbek bonbardatzeko arrazoia Hezbolaren gune bat desegitea zela, baina «istripu tamalgari baten ondorioz» jomuga nahastu zutela. Yitzhak Mordejai Israelgo Defentsa ministroak nabarmendu zuen beren asmoa ez zela inola ere zibilak hiltzea izan, «akats handi baten ondorio» izan zirela zibilen heriotzak.

Hezbolak, ordea, ez du azalpen hori aintzat hartu, eta luzaro itxaron gabe, atzo goizean Israel iparralde, Galilea ingurua, bonbardatu zuten *Katiusha* leherkarien bidez. Eraso nahiko gogorra izan zen Israelgo iturrien arabera, eta 12 zibil zauritu ziren bonbardaketaren ondorioz. Kiriati Shemona eta ondoko herri batzuk izan ziren kalтетuenak.

Zaurietuetako bat, printza batek bularrean jo zuen behargin bat, oso egoera larrian zegoen. Nolanahi ere, erasoak kalte material handiagoak eragin ditu hildako eta zaurituak baino, inguru horretako bizilagunak bonbardaketan kontrako aterbeetan baitzeuden, badaezpada. Halaber, inguru osoa geratuta egon zen atzo, zer gerta.

Israelgo Armadaren eraso dela eta, Hezbola gerrillaren jarraitzaileak oso haserre agertu ziren. Inola ere ez zuten sinetsi Israelek emandako azalpena, hau da, jomugaz nahastu zirela eta horregatik hil zirela zibilak. Aitzitik, eraso jendea hiltzearen egin zutela uste dute. Hala adierazi zuten atzo Hezbolako bozeramaileek erasoaren ondorioz hildako ama eta sei seme-alaben hiletetan.

Hain zuzen ere, milaka lagun bildu ziren hileta horietan eta erasoaren, eta oro har, Israelek aurkako oihuak egin zituzten, bi ekintzak lotuta baitaute Hezbolaren arabera. «Bonbardaketa hau Bill Clinton EEBBetako lehendakariak Iraken aurka egin zuenaren osagarri da», esan zuen Mohamad Jazbeck Hezbolako buruzagiak. Era berean, eraso horiek ez direla erantzunik gabe geratuko azpimarratu zuen.

Israelgo agintarien erantzuna ere gogorra izan zen. Bonbardaketa mehatxua zela-eta Galilea inguruko bizimodua hankaz gorajarri zenez, Segurtasun Arazoetarako Kabinetearekin bildu zen Benjamin Netanyahu lehen ministroa. Batzarraren ondoren adierazi zuen Hezbolaren eraso ez zela erantzunik gabe geratuko. «Ezin ditugu ekintza hauek onartu. Gure usteen arabera erantzungo dugu, eta egokia dela iruditzen zaigun momentuan», azpimarratu zuen Israelgo lehen ministroak. Ildo beretik, zibilen inguruko su-etena hautsi izana leporatu zion Hezbolari. X



Hezbolak Libano iparraldean bonbardatutako etxeetako bat.

YARON KAMINSKY
AP

Abenduaren 27tik aurrera berriturik gatoz



BESTE BATZUK JANTZI EGITEN GARA

Euskaldunon
Egunkaria

EEBBek hiru diplomatiko kubatar kanporatuko dituzte

«Segurtasunaren kalterako ekintzak» egitea leporatu diete Nazio Batuetako ordezkari horiei

Agentziak / New York

KUBAK Nazio Batuen Erakundearen (NBE), New Yorken, dituen hiru diplomatiko kanporatu egingo ditu EEBBetako Gobernuak. NBEko iturriek atzo jakinarazi zuten, EEBBetako Misiokoak gutun helarazi die, hiru ordezkari kubatar horiek EEBBetatik alde egiteko astelehenera arteko epea dutela esateko. Hain zuzen ere, hilaren 28ko arratsaldkeo 17:00ak baino lehen alde egin beharko dute EEBBetatik Kubako hiru ordezkari horiek.

Kanporatzeko epea ematez

gain, erabaki hori hartzeko arrazoia berri ere eman du gutun horretan EEBBetako Misiokoak: «EEBBen segurtasunaren kalterako ekintzak» egitea leporatu diete hiruei.

Hainbat hilabetez hiru pertsona horiek ikertzen aritu direla jakinarazi dute EEBBek, eta ondorioaren berri ere eman dute: NBEen zuten karguaz baliatu direla «beren kargutik kanpoko lanak egiteko». Lan horiek, EEBBen kontrakoak direla zehaztu dute. Kubari 24 orduko epea eman zieten EEBBek hasieran azalpenak emateko, baina Kubak ez ditu eman. X